

el testigo de la que fue mi primer vástago: Ada Elósegui, una treinteañera que adaptaba a Carrie Bradshaw y al resto de las chicas de *Sexo en Nueva York* a la España de 2003, como el Quijote con Amadís de Gaula.

Ada y Teresa, a las que próximamente se sumará Valeria: pálpitos de carne y sueño con forma femenina porque no es justo que la dama por excelencia del XIX fuera Madame Bovary, y la del XXI, una joven rendida a un tal Christian Grey que, en román paladino, es un Cristiano Gris. Nos merecíamos algo mejor, o eso pensé yo. Otro tipo de protagonistas: femeninas y también masculinos. Ha llovido mucho desde que Flaubert escribiera *La educación sentimental*; creo que tocaba hacérselo mirar. Considero que he cumplido con mi parte.

Por último: nací en Pamplona un mediodía de junio y crecí imaginando historias en el jardín de mi abuela, la única casa que reconozco. He sido nómada –Milán, Madrid, Londres– y ahora vivo en paz, peleando solo sobre el papel. Únicamente me siento orgullosa de batallar por los perros abandonados y de haber adoptado uno.



294



FOTO: Tomada de wikipedia.

## Zabaleta Zabaleta, Patxi

(Leitza, 1947)

**P**ATXI ZABALETA ZABALETA, Leitza 1947-5-20an jaioa. Ikasketak zuzenbidea eta filosofia. Hona hemen idatzitako literatura liburuen zerrenda:

*Zorion baten zainak*. Olerkiak. Bere azken olerkiek *Nafarroa da* izeneko bildumatxoa osatzen dute. Etor argitaletxea, 1972. Tribunal de Orden Público, TOP delakoak sekuestratu egin zuen eta galdeketa bate gin zidaten, baina ez

zen epaiketara iritsi. Ez dakit sekuestro hura inoiz altsatu ote zuten.

*EUSKOMUNIA ALA ZOROASTROREN ARTALDE!* Ipuinak. Autore-editore bezela argitaratua.

*Ezten gorriak.* Olerkiak. Autore-editore bezela argitaratua.

*Nafarroako azken mariskala.* Antzerkia. Txalaparta argitaletxea. (Nafarroa 1512-1531 gerratean indarrez konkistatua izan zeneko alegatoa).

*Errolanen harria.* Eleberri poetikoa. Txalaparta argitaletxea. (Vaskoien erresuma, Iruñekoa eta gero Nafarroa izena hartuko zuena sortu zeneko gudualdien ikuspena euskal mitikako ipuin batetik abiatuta).

*Ukoreka.* Eleberria. Txalaparta argitaletxea. Trilogiako lehena. Haurretxe batetik jasotako mutiko bati dagokion kondaira. (Baserriaren eredia mantentzeko beharrezkoa den maiorazgoari buruzko azterketa mikatza. “Ukoreka” hitza, orekaren ukoa indar askearen edo energiaren ikur bezela erabiltzen da). Eleberri honek eta hurrengo biek trilogia bat osatzen dute, agian euskal literaturako lehena.

*Badena dena da.* Nafarroan gerratea hasten denean gertatutako kondaira gogorretan mutil gazte batek (lehenago mutikoak) izandako jokabidea. (Indarkeriari buruzko gogoeta gordina). (Eleberriaren izenak tautologia bat izateaz gainera esapide filosofikoen azterketa eta arbuilapenaren aukera dakar).

*Harian hari.* Eleberria. Txalaparta argitaletxea. Frankismoaren erdiguneari -1959- basoetako gerrilariak bukatu eta ETA erakundea sortzen den urteko gogoetak. Trilogiako hasieran mutikoa dena eta gerrako hasieran mutil gaztea hirugarren honetan gizaseme heldua da. (Politikako gogorkeriari buruzko gogoeta).

*Eneko Aritzaren hilobia.* Eleberria. Autore-editore bezela argitaratua. 2003an Iruñeko gaztelu enparantzan agertutako hilerri musulmandarra eta aldi berean kristaua Enekoaren leinu edo “klanekoena” behar zuela aztertzen duen araketa; aldi berean euskararen jatorriari buruzko eztabaidan sartuz.

*Bizi!* Olerkiak. Pamiela argitaletxea. *Nafarroa da* izeneko bigarren olerki bilduma darama.

*ABSURDOKO KONTUAK EDO ZOROEN HERRIKO KRONIKAK.* Ipuin absurdoak. Pamiela argitaletxea.

*Harri aroko arima izutua.* Eleberria. Autore-editore eta une honetan inprimategian.

Beste idazlan batzuk –euskaraz eta erderaz– gai politikoez, historikoez edo beste batzuez ez dira zehazki narrazio edo literaturaren barruan sartzen direnetarikoak.

